



Barakaldo
CIUDAD · HIRIA



PRENTSA OHARRA

Barakaldo, 2022ko maiatzaren 23a

BAFFEST 2022, EMAKUME ARGAZKILARIEN LEHIAKETAREN VII. EDIZIOAK BADITU 9 FINALISTAK

- **Epaimahaiak –Susana Mar, Carmen Dalmau eta Itziar Bastarririk osaturikoak– ‘BAFFEST Argazki Egunean’, urriaren 8an, aurkeztuko diren 9 lanak hautatu ditu. Berebat, lehiaketaren irabazlea emango da jakitera egun horretan.**

BAFFEST 2022, Emakume Argazkilarien Lehiaketaren VII. edizioak baditu 9 finalistak, eta hautaturikoek BAFFEST Argazki Egunean, urriaren 8an, aurkeztuko dituzte lanak. Berebat, lehiaketaren irabazlea emango da jakitera egun horretan. Joan den astean, bertatik bertara ikusi dituzte argazkiak Valentzian, Madrilen eta Donostian, eta orain, Susana Mar, Carmen Dalmau eta Itziar Bastarririk osatutako epaimahaiak BAFFEST 2022 Emakume Argazkilarien Lehiaketaren irabazlea izango den argazkilaria baten lana aukeratuko du. Saritutako lanak 2023ko edizioan parte hartuko du, Festibalak berak ekoitziko duen banako erakusketa batean, eta 500 euroko saria jasoko du. Epaimahaiak euskal argazkilaria onenari ere saria emango dio, eta azkenak Barakaldo Saria jasoko du, 300 euroko zenbatekoa poltsikoratuko eta 2023ko Festibalean ere parte hartuko du. Lehiaketaren irabazle nagusia euskal argazkilariren bat balitz, epaimahaiak bigarren lan bat sarituko luke, egilearen jatorria zeinahi dela ere.

Hauexek dira 9 finalistak:

- Meritxell Ahicart, «Devilvery» (Castelló).
- Ainhoa Valle, «Matriz Cero» (Oviedo, Bartzelonan bizi da).
- Georgina Rodríguez Ayala, «Esquejes» (Mexiko, Bilbon bizi da).
- Deebo Barreiro, «La casa de las delicias» (Vigo, Madrilen bizi da).
- Laura San Segundo, «El recinto circular» (Alcala de Henares (Madril)).

- Raquel Bravo, «Nubes, Pájaros, Flores» (Madril).
- María Hernández Laplaza, «Todo el rato pasan cosas» (Tutera, Bilbon bizi da).
- Tania Barrenetxea, «Apegos feroces» (Barrika (Bizkaia)).
- Irene Larrañaga, «Insuladas» (Donostia).

Aurtengoa dugu aurretiaz hautaturiko hogeita hamar emakume argazkilariek euren lanak modu berezian aurkeztu dituzten lehenengo urtea, hau da, Valentzian, Madrilan eta Donostian egindako zuzeneko ikustaldiak baliatuz. BAFFEST 2022 Festibalaren antolatzaileek oso egoki iritzi diote ekimenari. «Jaialdiak hiru hiri horietan jaso duen harrera zoragarria eta izugarria izan da. Eskerrik asko Revelarte, EFTI eskolei eta San Telmo Museoari, dagoeneko BAFFEST familiaren barrukotzat jotzen ditugu hirurok. Aurkezpenen maila eta jendearen erantzuna izugarria izan da, eta egiatan zaila izango da bizi izan dugun esperientzia gainditzea».

Finalistek epaimahaiaren aurrean aurkeztuko dituzte aukeratutako lanak, urriaren 8an, Barakaldoko Clara Campoamor kultura etxean egingo den ikustaldian. Argazkilariek era digitalean edo euskarri fisikoa erabiliz aurkeztu beharko dute lana, eta bideokamera bat erabiliz erakutsiko da. Aurkezpen horretan, egileek epaimahaikoen iritziak eta iradokizunak jasoko dituzte, lanaren garapena errazteko.

Itxura batean, urriaren 8ko 'BAFFEST Argazki Eguna' nahikoa trinkoa izango da. Bezperatik hasiko da, urriaren 7an, Euskal Herriko eta estatuko parte-hartzaile guztiei harrera egingo zaie. Hurrengo egunean, urriaren 8an (larunbata), goiz-goizetik, ikustaldiak egingo dira Clara Campoamor kultura etxean eta bisita gidatua ere izango da; bisita amaitutakoan, herri-bazkaria egingo da.

Arratsaldean, aldiz, 17:00etatik 21:00etara, ekitaldi gehiago izango dira kultura etxeko auditorioan:

- 17:00: EFTI (Madril) eta Revelarte (Valentzia) eskolen eta San Telmo Museoaren (Donostia) aurkezpen laburrak. 'Gabriela Cendoya Bergareche' argazki-liburuaren bilduma gordeta dago San Telmon. Aipaturiko hiru etxe horietan, aukeratu diren lehen hogeita hamar argazkilarien lanen ikustaldiak egin dira maiatzean.
- 18:30: Carmen Dalmauren argazki-liburuaren (Va! aldizkaria) eta Elena González Torres Klamca argazkilaria erakusketaren aurkezpenak (Elenaren erakusketa kultura etxean bertan dago).
- 20:00: BAFFEST 2022 saria emateko ekitaldia.

Asteburuari azkena emateko, urriaren 9an, igandearekin, Cris P. Lareo argazkilariak Errekatxon daukan erakusketara bisita gidatua egingo da eta, horren ondotik, beste herri-bazkari bat izango da.

INFO +:

www.baffest.eus

www.facebook.com/baffest

www.twitter.com/baffest_eus

www.instagram.com/baffest.eus